



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Eva Ferreira García andreak. UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen du dokumentu hau hitzez hitz antzerela bat jatorrizkoarekin.
registro eta Arazo Orokorretako II. Bulegoko buruak anpetua, 2009ko urtarrilaren 7ko erabakiak burordetzan emandako eskumena dela eta.

Eva Ferreira García. Secretaria General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original.
Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 7 de enero de 2009, la jefe de Negociado de Registro de Asuntos Generales II.

ERABAKIA, 2011ko irailaren 21koa, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordearena, Mugikortasunaren Aste Europarra dela eta antolatu diren "Bilbao, nire kotxe barik" hitzaldiak babesteko dena.

RESOLUCIÓN de 21 de septiembre de 2011, del Vicerrector de Campus de Bizkaia de la UPV/EHU, por la que se procede a avalar las charlas "Bilbao sin mi coche" organizadas con motivo de la Semana Europea de la Movilidad.

Graduko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako 2011/2012 Arautegiaren 60. artikulua dioenez (2011ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zenbakiduna), 1393/2007 Errege Dekretuak xedatutako antolakuntza baino lehenagoko ikasketa planen kasuan prestakuntza osatzeko ekintzen bitartez lor daitezke aukera askeko kredituak, baldin eta kasuan kasuko ikasketa planak besterik ez badio.

Conforme al artículo 60 de la Normativa de Gestión para las enseñanzas de Grado y de Primer y Segundo Ciclo para el Curso 2011-2012 (BOPV nº 101 de 30 de mayo de 2011), en los planes de estudio anteriores a la ordenación establecida por el Real Decreto 1393/2007, es posible amortizar créditos de libre elección por actividades complementarias de formación, siempre y cuando su propio plan de estudios no lo impida.

Hortaz, 62.11.b) artikulua ezartzen duenez, aukera askeko kredituak aintzatesteko, jarduera osagarritzat joko dira campuseko errektoreordetzak babesten dituen ikastaro, mintegi, hitzaldi, jardunaldi eta biltzarrak. Campuseko errektoreordetzak babestutako jardueren bidez unibertsitateko ikasle guztiek amortiza ditzakete aukera askeko kredituak, zer titulaziotan dauden matrikulaturik kontuan hartu gabe.

Conforme al artículo 62.11.b) tienen la consideración de actividades complementarias para el reconocimiento de créditos de libre elección los cursos, seminarios, conferencias, jornadas y congresos avalados por el Vicerrectorado de Campus. Tales actividades avaladas por el Vicerrectorado de Campus tienen reconocimiento para amortizar créditos de libre elección para todo el alumnado con independencia de la titulación en la que estuviera matriculado.

Hori guzti kontuan hartuta, eta aipatutako arautegiak ematen dizkidan ahalmenen babesean, honakoa

Por todo ello, y en ejercicio de la facultad que la citada normativa me atribuye,

ERABAKI DUT

RESUELVO

Lehena.- Babesa ematea "Bilbao, nire kotxe barik" hitzaldiei. 2011ko irailaren 16tik 22ra bitartean egingo dira, eta guztira 15 ordu izango dira.

Primero.- Avalar las charlas "Bilbao sin mi coche" que se celebrarán del 16 al 22 de septiembre de 2011, con un total de 15 horas.

Bigarrena.- Erakunde antolatzaileak, jardueran parte hartuko duten ikasleen jarraipena egingo du eta ziurtagiria emango die, zer jarduera egin duten, jardueroi dagokien ordu kopurua, nor den antolatzailea, burutze data eta erabaki hau eman duen organoa beren beregi aipatuz.

Segundo.- La entidad organizadora establecerá el seguimiento del alumnado participante en las actividades que desarrollen y entregarán al mismo un certificado con la indicación expresa de las actividades realizadas y horas correspondientes a las mismas, quién las ha organizado, fechas de las mismas y



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

fecha y órgano de emisión de la presente resolución.

Hirugarrena.- Ikasleak, UPV/EHUko Akademi Gestiorako Arautegiaren 63. artikuluan aipaturiko epeetan, ziurtagiri hori aurkeztuko du bere matrikulari dagokion ikastegiko Idazkaritzan kreditu horiek espedientean sar diezazkioten, prezio publikoak (tasak) ordaindu ondoren.

Tercero.- Con este certificado el alumno, alumna se presentará, en los plazos señalados en el artículo 63 de la Normativa de Gestión Académica de la UPV/EHU, en la Secretaría del Centro en el que esté matriculado, matriculada para que, tras el abono de los precios públicos, sean incorporados al expediente.

Laugarrena.- Ekintza horiek egiten dituzten ikasleei kreditu bat emango zaie 15 ordurengatik; gehienez ere 20 kreditu emango dira ziklo bakarreko titulazioetan, eta gehienez ere 30 kreditu ziklo bitako titulazioetan.

Cuarto.- Para estas actividades se establece la equivalencia de 1 crédito por cada 15 horas hasta un máximo de 20 créditos por titulación de un ciclo y 30 créditos por titulación de dos ciclos.

Bosgarrena.- Urriaren 29ko 1397/2007 Errege Dekretuak, unibertsitateko ikasketa ofizialen antolamendua zehazten duenak (2007ko urriaren 30ko BOEko, 260zk.), ezarritako antolamendua baino lehenagoko ikasketa planak egiten ari diren ikasleentzat beste inorentzat ez du baliorik izango erabaki honek. Hau da, ez du balio graduren bat egiten ari diren ikasleentzat.

Quinto.- Esta resolución es válida únicamente para el alumnado que esté cursando Planes de Estudios previos a la ordenación establecida por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se dispone la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales (BOE nº 260 de 30 de octubre de 2007). Es decir, esta resolución no es válida para el alumnado que esté cursando alguna titulación de Grado.

OHAR GARRANTZITSUA: Jardueraren antolatzaileek honen inguruko informazioa jarri beharko dute jardueraren zabalkunderako prestatuko dituzten dokumentuetan eta, ahal bada bertaratze ziurtagirian.

IMPORTANTE: Los organizadores de la actividad deberán informar al respecto en los documentos de difusión de la misma y, a poder ser, en el certificado de asistencia.

BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA / VICEDIRECTOR DE CAMPUS DE BIZKAIA

Carmelo Garitaonandia Garitaonandia

